



Protesta arrazista bat izan da Trapagaranen

AGENTZIAK/LA HAINE :: 28/03/2025

Segurtasunaren aitzakipean, okupatutako eraikin batean bizi diren 30 bat migratzaile kriminalizatzen ari dira.

Dozenaka pertsona atera ziren kalera atzo Trapagaranen, "Trapagaranek muga bat dauka. Herri seguru eta gaizkilerik gabeko baten alde" lemapean. Abandonatutako eraikin batean bizi diren pertsonak seinatzeko erabili zuten protesta, izan ere, delinkuentziaren eta segurtasun ezaren eragileztat jo dituzte.

Herrian hedatutako jarrera arrazistaz gain, udalalak eta indar errepresiboek ere egin dute migratzaile hauen aurka: Aste honetan egin dute haien aurkako operazio bat udaltzainek, Ertzaintzak eta Espainiako Poliziak, eta osotara 21 lagun identifikatu eta zortzi atxilotu dituzte. Gainera, badirudi udalak asmoa duela eraikinean bizi diren pertsona guztiak euren bizitokitik botatzeko, kale gorrian utziz. Bere garaian suhiltzaileek erabiltzen zuten udal-eraikinean bizi dira gaur egun 30 bat pertsona migratzaile eta epaile batek desalojorako baimena eman du.

<https://eh.lahaine.org/protesta-arrazista-bat-izan-da>